

Iñaki Eizmendi Manterola **BASARRI**

Joxemari Iriondo
Zarautz, 2011.03.19

Egun on jaun-andreok; bihotzez eskertzen dizuet Basarri aipatzeko ematen didazuten aukera eder hau.

Granadatik Azken Portura

Dakizuen bezela Basarri Errezilgo Granada baserrian jaio zen, 1913ko azaroaren 27an, eta Zarautzen hil, 1999ko azaroaren 3an, larogeita sei urte betetzear zegoela (orain hamaika urte).

Sei urte zituela Azpeitira bidali zuten, eskola pittin bat ikasi zezan. Baina egonaldi hark hutsa iraun zuen, familia Zarautzera aldatu baitzen urtebeteren buruan, erreka zulo hartako bizimodua gogor eta traketsa zela-ta familia hazi eta hezitzeko. Basarrik inoiz ez zuen ukatu ordea Granada baserriko jatorria: “*Ordekarik, soro eta zelairik ez dan mendi-tarte hura*” aipatzen zuen gaztetako kontuak esaten hastean. Eta bere burua pentsamentuz betetzen omen zitzaion joan eta hango bazterrak ikusten zituen bakoitzean. Han bizi izan ziren bere guraso Antonio Maria Eizmendi eta Maria Frantziska Manterola, eta aurrekoak bihotza bete-betean goraltzen zituen.

Bertsolaritzan iraultzaile

Lehengoa dena zahar eta hutsaren hurrengo iruditzen bazaigu ere, Basarri bertsolariak iraultza handia ekarri zuen bertsolarimundura. Erakusle eta maisu izan handi zen hura orduko bertsolaritzan. Baita euskarazko irratigintzan edo eguneroko euskal kazetaritzan ere, ondo dakigunez. Hemezortzi urte zituela hasi zen idazten. Hurrengo apiril honetan *Auspoa* sailean argitara emango degun **BASARRI II, JARRITAKO BERTSO ASKO** libururako egin degun bilketak dioenez, 1929koa da bere lehenengo bertso idatzi saila (*Dantza naastua*, Euzkadi, 1929.07.17). Eta lehenengo kronika, berriz, 1930ekoa da (*Kuku ta kuku*, Euzkadi 1930.04.13).

Batez ere bertsolaria zen Basarri; eta 1935ean bertsolarien txapela jantzi eta 1996ko urtera arte ez zen gelditu batera eta bestera. Gerraurreko eta gerraosteko urteetan, bere auzotar Eusebio Eizmendi *Txapelekin* eta Akilino Izagirre *Zepai*

Txikiarekin, Txirritarekin, Uztapide gaztea eta garaiko bertsolari beste handi guztiekin ibili zen.

Bere garaiko bertsolaritzari duintasuna eman eta itxura eta mamiz eguneratzen ahalegin berezia egin zuen. Bertsolaritza taberna eta sagardotegi-zuloetatik plazara/antzokira ateratzen, eta bertsolari zaharren artean modan omen zegoen hainbat hizkuntza-joera lardasbero txukundu eta dotoretzen ahalegindu zen, bertsolariak zuten nolabaiteko izen eta fama hobetuz.

Eredu bat hartu omen zuen lantegi hortarako, askotan esan zuenez:

“Ba zan or, Gernika alde hortan, Urretxindorra esaten zioten bertsolari bat, Kepa Enbeita izenez. Eta iru-lau aldiz kantatu nuen arekin, Eusko Alderdi Jeltzalearen mitinetan. Aren bidea ikaragarri gustatu zitzaidan. Ura etzan “ori mozkorra omen dek” eta “beste orren andrea alakorekin ibiltzen omen dek” eta orrelako nabarmenkeriak esaten aritzen. Gauzak zuzen eta ondo esaten zituen ark, bizkaiera ederrean eta poesi kutsuarekin. Orrela, bada, bertso-baratza pixka bat jorratzen asteko aukera ona zala pentsatu nuen. Denak etzuten ondo ikusten ori, ondoegi itz egiten nuela esaten zidaten. Baina denak edo geienak komentzitu ziran gero. Zer nai dezu?”.

Badakit zuria eta beltzaren artean ñabardura asko badela; eta hau ere oso eztabaidagarri izango dela, agian, baina hirurogeita hamabost urte honetan bertsolaritzak izan duen iraultzarik nabarmen eta handiena Basarrik ekarri zuela nago, gaur egun bezalako bertso-eskola, diru publiko eta hedabideen laguntasunik gabe.

Azken Portu

Zarauzko Azken Portu baserri-tabernan hasi zen bertsotan. Berak esana da:

Azken Portuko etxea eta taberna hura gustoko aterpea zuen inguruko baserritar jendeak; eta hamaika bertso eder entzuten zan an. Jakineko bertsozale batzuk jaiero-jaiero an biltzen ziran, Xenpelar, Udarregi eta beste bertsolari ezagun eta bertsojartzailerik onenen bertsoak kantatu eta, aldian behin, bat-bateko saioak egiteko. Besteak beste, *Sasi* aita-semeak, *Nekazabal*, *Exkerra* igeltseroa eta abar biltzen ziran. *Prantsez Txikia* eta *Gaztelu* ere sarri etortzen ziran, gu zirikatzekeo irrikitan.

Plazan lehenengo saioa

Azken Portuko baserri-tabernan lagunarteko saio askotan kantatu ondoren, Zestoako plazan egin zuen benetan bere debuta, hamazazpi-hemezortzi urte zituela. Jaiegun hartan Zestoara joan zen nonbait bere lagunekin, eta bertsolari bat bakar-bakarrik han ari omen zen bertsotan, mitin batean – Ordizian bizi zen Erauskin Errotaria zen–. Etzuen bertsotan hasteko asmorik, baina lagunak ia! Eta, ia! hasi omen zitzaizkion zirikatzen, eta konturatu zenerako bertsotan ari omen zen.

Beste behin, Zarauzko *Naste-Borraste* taldea Donostiara joan zen dantza, kantu eta antzerki saioa ematera. Eta bertso batzuk kantatzera joan zedila eskatu zioten Basarri gazteari. Baita joan eta bere saioa egin ere hark, txanda etorri zitzaionean. Joseba Zubimendi idazleak/kazetariak ikusi hantxe, eta 1935eko *Bertsolari gudua* edo Bertsolarien Txapelketa antolatzeke erabakia hantxe bertan hartu omen zuten Zubimendik, Ander Luzearek, Aitzol eta konpainiak.

1935eko Bertsolari gudua

1935eko urtarrilaren 20an garai hartako bertsolari onenak Donostiako Kursalean bildu ziren, nor baino nor. Basarri derrigortuta eraman omen zuten. Hogeita bat urte zituen mutilak, eta sasoi galanta. Baina bazekien txapelketan ez zela izango Azken Portuko edo lagun arteko konturik, eta irten edo eten egin beharko zuela, farragarri geldituko ez bazen. Askatu ezineko korapilo gaizto batek zintzurra estutzen omen zion, eta izuikarak burua nahasten. Batez ere Txirrita haundiak larritzen zuen. “*Nik zer egin bear det olako maila duten bertsolarien ondoan?*” galdetuz bere buruari.

Sekulako bertsozale multzoa bildu zen Kursaal zaharrean; eta bertsolari bakoitzak ahal zuen dena egin zuen –Ez zen orain haina mikrofono eta kamara izango aurrekaldean–. Bertso-giroa ezin hobe, bertso-saio ederra, Basarri gaztearena, bereziki. Egun hartako epai-mahaia osatzen zuten Jose Ariztimuño *Aitzol*, Olano, Toribio Alzaga, Manuel Lekuona eta Jose Olaizola ere ahoa bete hortz, kontuizu. Txapela bertsolari gazteenari eman zioten, Basarriri. Bigarrena, Matxain senperetarrari –oraintsu argitaratu du hari buruzko liburua Frank Dolosor kazetariak–; hirugarrena, Zepai; laugarrena, Urnietako Alkain. Txirrita haundia, ordura arteko bertsozaleen idolo sakratua, bostgarren izan zen. Izan omen zen zeresana ugari orduan ere.

Eta holaxe, gure bertsolaritzaren aro berri bat hasi zen 1935eko txapelketarekin. Juan Mari Lekuona zenak idatzi zuen bezala,

“Basarrik, egia da, une hartan iraultza-joera baten indarra zekarren, orduko gazte askoren joera aberrikoa. Baina bazekarren, baita ere, sozio-kultura mailako joera orokor bat, zibilizazio berriago baten eskakizuna, azken urte hauetako bertsolarien araupide jakina: apain jantzia, hizketa txukun eta aberatsa, errespetozko jokabidea, eskola eta garaiaresen garaiko pentsamolde zehatzagoa...” (Nere Bordatxotik. Auspoa sail nagusia. Auspoa-Sendoa, 1992)

Bertsolari guduaren antolatzaile Donostiako Euskaltzaleak elkartearen izan zen, Aitzol haundia buru zela. Sekulako zuzperraldia izan zen hura bertsolaritza eta euskerarentzat.

Gudari eta ertzain

Gudak inoiz ez du ondoren onik. Eta 1936ko hark eten gogorra ekarri zuen Euskal Herrian. Basarri ere bapo harrapatu zuen zepoan, beste asko bezala. Eta abertzalea izaki, bazter batetik bestera ibili behar izan zuen, borrokan eta herritik ihesi. Zaraten, Bidanian, Arraten eta abar ibili zen, Loiola batailoian buru-bihotz sartuta; Bizkaiko frentetan ere bai. Eta hantxe, tiro artean, *Euzkadi* eta *Eguna* egunkarietarako idazlanak prestatzen zituen. Itxura denez, Basarriren lanak harrera on samarra izaten zuten gudarien eta euskalzaleen artean; eta artikuluen bila frenteraino joaten zitzaion mezularia.

Horretarako ofizio onaren jabe izaki, aldi behin bertsoak ere kantatzen zituen Bilboko irradian, frentean zeuden guda-mutilak animatu eta zuzpertz nahirik. Horietako batzuk 1937ko apirilaren 15eko *Egunak* jaso zituen, eta Auspoa sail nagusiko Basarriren bilduman argitaratu zituen Antonio Zavalak. Egoera larri hartan, etsaien ekintza gaizto eta makurrak aipatu eta salatzen zituen, bereziki. Bilboko irradian kantatu zuen bost bertsoko sortari dagokion zati hau adibide ona da, esate baterako:

Egoki asko joka dezute ene Durango aldean,
meza ematen zeuden apaizak il dituzuten unean.
Ainbat aurtxo ta emakume on, amairu moja tartean.
Etxe illarak txit apurturik antxe gorputz, loi artean.
Kontu ederra daukazute, bai, Jaungoikoaren aurrean...

(Egunen batean argitaratuko ditugu Basarriren garai hartako idazlan asko, jasota dauzkagu-eta).

Taldeko mutilik handienak ertzain izateko aukeratzen hasi zirenean, ertzaintzarako hautatu eta hartu zuten Basarrui, Iñaki Leclerc donostiarra kapitain zuela.

Atzerrira, ihesi

Baina Euskal Herriko egoera geroz larritzenago, eta 1937ko ekainean nazionalek Bilbo hartu zutenean, Santander aldera ihes egin behar izan zuen beste askok bezela. Handik ere laster partitu behar berriro. Frantziara joan ziren uztail triste hartan, eta Nantes ondoko herri txiki batean gelditu. Gaitzerdi, hala ere: Landesko baso eta oihanetan lana eman eta basomutil ibili zen aldi batean. Ondorengo hiru urte haundi hantxe, “Landesko piñudietan” egin zituen, etxera itzultzeko eguna noizbait etorriko.

Garai hartan idatzitako bertsoak **Nere Bordatxotik** (Auspoa Sail Nagusia 2) liburuan jasota daude: “Landesko piñu artean”, “Frantziko alkate bati”, “Euskal misioak Ichouxen”, “Ichouxko madame Sarteri biotzez”, eta abar. “Landesko pinu artean” izeneko sorta ederra Ichouxen idatzi zuen, 1938an, taldeko “ogei lagun euskaldunen eskariz”. Eta sei bertsoko sorta hura honelaxe hasi zuen:

Euskaldun jaio giñan mundura ta beti euskaldun bizi.
Onak izanda alare begiz askok ezin gu ikusi.
Pekaturikan baldin badegu, lana egitea, noski.
Españiako odolzaleak nai giñuzean irentsi,
eta Frantzira etorri bear izan genduan igesi.

Mugan harrapatuta

1940ko urrian, bere amaren eta lagunaren eskabideari erantzunez Zarautza itzultzen arriskatzea erabaki zuen. Baita Hendaia-Irungo muga pasatu eta herrirantz abiatu ere; baina, amaren ametsak eta semearen usteak, denak ustel gertatu ziren. Hendaiaiko zubian bertan lotu eta **trabajadore**tara eraman zituzten zuzenean. Handik aurrera nondik nora eta nola ibili zen jakiteko bere bertsoak irakurtzea aski da. Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an osatutako hamahiru bertsoko sorta batetik honatx bat:

Mirandatikan Madrida, eta gero Madritik Bejarra,
bagoi zarretan, txerrien gisan, etzan pasio ederra!
Erri ontako gure izakera daukat agertu bearra:
gose askorik ezta pasatzen, baizik beti bat bakarra.

Madriletik Oiartzuna ekarri zituzten gero, Aitxuleira. Han idatzi eta izenpetu zituen bere bertso-lagun Uztapiderekin batera hamaika aldiz kantatu ohi zituen zenbait: *Nork egin du gure galde?*, *Lesakako festatan* eta abar –Hauek ere argitara emanda daude *Nere Bordatxotik* liburuan.

Bertso horietako asko, eskuz eta letra bikainarekin idatzita bidali zizkion bere lagun Tomas Uriarte zenari, eta hark gorde zituen Santimamiñeko (Kortezubi-Bizkaia) Txukene baserrian.

Euskal Herritik urrutira eraman zituzten gero: Melillako Seghanghara, alajainkoa! 1943ko martxoaren 4an Tomax Uriarteri bidali zion gutuna irakurri besterik ez dago: “Aztu eziñeko Tomax maitea: Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñeko baten ondoren datozkidan burutapenak. Atzo ere euri-eguna genduan eta gure aterpean kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak”.

Bazuen ordea bertsoak eta olerkiak egiteko hainbat umore. Gutun horrekin batera zortzi ahapaldiko bertso-sorta bidali baitzion “esateko” direla adieraziz:

Bijoaz beingoz laiño zakarrok, ta betor zeru argia!
Ega bitez euskaldun usoñoak. Azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua! Mintza zaite gaurkoan.
Adierazi mingotzaldiak zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak. Dan-danak zuretzat zeuden.
Ainbat zigor artuta eztakit bizirik nola zauden!

Etxera

Joanak joan, azkenean libre utzi zuten 1943ko ekainean! San Pelaio festetarako bere Zarautz maitera itzuli zen, zazpi urte luzeko amets erbestealdia pasata. 1943ko ekainaren 26a egun seinalatua izan zen Basarrirentzat. Bakarti etorri omen zen barkuan, bertso kantari, *“itsaso aundi artako katxalote eta arraiak entzule nituela pentsatuta”*. Bere denbora guztian ez omen zuen izan huraxe baino egun haundiagorik.

Bertsolari, idazle, irrati-gizon

Bertsolariak beharrezko osagarri ziren herri euskaldun askotako zaindari jaietan orduan ere. Eta Eusebio Eizmendi *Txapel*, Akilino Izagirre *Zepai*, Paulo Zubiarraín *Hernani Txikia*, Loidisaletxe eta abarrekin etengabe ibili zen. Basarri eta Uztapideren txanda eta moda 1945etik aurrera etorri zen.

Nolanahi dela ere, kontu haundiz eta hitzak ondo neurtuta kantatu behar izaten omen zuten. *“Bertso borobil eta ateraldirik onenak burura etorri bai, baina kontuz itz egin bear orde, politikarik-eta aipatu gabe. Gaurko bertsolaritza gauza erreza da ordukoaren aldean. Ez dago eragozpenik, ez dago trabarik. Baina orduan?!”* gogoratu ohi zuen.

Basarri ez zen izan soilik bertsolari. Idazle eta kazetari ere bazen; idazle eta kazetari euskalduna, herrikoia, oparoa. Euskal Herriko beste egunkarietan inork aipatu nahi ez eta bazterturik zegoen hainbat herri-kirol, herrietako festa, bertso-jaialdi eta gertakariaren berri zabaldu zuen urteetan.

Gerra aurreko *El Dia*, *Zeruko Argia*, *Euzkadi*, *El Pueblo Vasco*, eta gerra osteko *Euzkadi*, *Eguna*, *Gudari*, *Euzko Enda*, *Gudari*, *Gure Herria*, *Arantzazu*, *Anaitasuna (Tolosa)*, *Zeruko Argia*, *Goiz-Argi*, *Euzko Deya*, *Egan*, *Egin*, *Ekin*, *Tierra Vasca*, *Herria*, *Agur*, *La Voz de España*, *El Diario Vasco* eta herri aldizkari askotan sakabanututa aurkitu ditugu haren idazlanak. Baita *Arrasate*, *Arnas*, *Beasain*, *Eibar*, *Bidasoa*, *Gernika*, *Izaskun*, *Jaunaren Deia*, *Karmel* eta abarretan ere.

Eguna egunkariarekin sortzaile ere izan zen.

Sei bertso-liburu argitaratu zituen:

- Atano III, bere edestia bertsotan* (Zarautz. Itxaropena, 1949);
- Basarriren bertso sorta* (Zarautz. Itxaropena 1950)
- Kantari nator* (Zarautz. Itxaropena, 1960)
- Laugarren txinpartak* (Auspoa 55- 1966)
- Sortu zaizkidanak* (Auspoa 112 -1973)
- Kezka-giroan* (Auspoa 169 - 1983)
- Bertsolaritzari buruz* (Auspoa 178 - 1984)
- Nere Bordatxotik* (Auspoa sail nagusia2.1992)

Irrati-gizona

Bertsotarako eta idazteko zuen erraztasun eta abileziak aitortu ondoren, plazan nahiz irratiko mikrofono aurrean hitz egiteko zuen etorria eta egokitasuna ere aipatu behar dira. Gerraurrean, gerratean eta gerraostean bertsoak kantatu ohi zituen irratiz askotan. Eta 1949ko udazkenean hasita, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunez, Jose de Artetxe, Beorlegi eta talde batek egiten zuen irratsaioan hitz egin eta kantatzen zuen. Asteroko irratsaioak egiten hasi, berriz, 1957an hasi zen bere herritar Maria Dolores Agirre, Manu Oñatibia eta Enrike Zurutuza albaitekoak, eta Jose Mari Etxebeste lagun zituela. 1957ko irailaren 13an egin zuten lehenengo irratsaioa. “*Audición de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián*” izenarekin iragarri zuten Donostiako *La Voz de Guipuzcoa* irrastian, ostiral arratsetan 20:15tik 21:00etara.

Hizlari/mitinlari

Hizlari eta mitinlari egoki eta sutsua bazen Basarri. Neurri librean hitzak errimatuz berriketan hasten zenean, entzulea ahoa bete hortz edukitzen zuen, txundituta. Hitz-jario ederrekoa, txukun eta atsegina zen. Berak ere bazekien, eta hitz egiten gozatu egiten zuen eta gozarazi, bide batez.

Ohorezko euskaltzain

1984ko azaroaren 30ean *Ohorezko euskaltzain* izendatu zuen gure Euskaltzaindiak. Gutxiago merezi zuenen bat izendatuko zuen, seguru asko.

Azken goralmena

Amaitzeko, Joxemari Lertxundi bertsolari eta bertsojartzaile aiarrak behin bidali zidan bertso-sortatik hauexek gogora ekarri nahi nuke azkenik.

Saiatu zan Basarri garai gogorretan.
Gurdirik etzenduan ta beti lorretan.
Zu beti aurreitzai lanbide orretan...
Bertsolaritza dago zurekin zorretan.

Basarriren euskera garbi, aberatsa;
txukun jorratu eta zainduaz baratza.
Kenduaz belar txarrak, sasi ta arantza...
Frutuak jasotzeko badet esperantza

Zu zera bertsoaren oiñarri ta abe,
naiz ori lortzen pasa amaika naigabe.
Gaur ez giñan izango doai orren jabe
len zuk eman zenion bultzadarik gabe.